# LAKUNTZA

udal aldizkaria

17. zenbakia 2008ko azaroa




LaKuntzaileoK

HERRITARREN PARTE-HARTZE PLANA

PLAN DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA



Urriaren 23ko bileran ondoko talde hauen ordezkariek parte hartu zuten batzarrean: Bil-toki, Lagun Artea Futbol Taldea, ehiztariak, Elai Alai Dantza Taldea, Eskolako Guraso Elkartea, Ikastolako gurasoak, Eskola Kontseilua, Gure Nahia, Haizea Kultur Elkartea, Lakuntzako Pertza Elkartea, Oilaskoitturri Taldea, gazteak, Lakuntzako Abesbatza, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, 1990ko kintoak eta udal ordezkari eta alkatea.

## Lakuntzako Parte-hartze Plana, martxan

Dagoeneko martxan dago Lakuntzako Parte-hartze Plana. Urriaren 23ko batzarrean 15 elkartek hartu zuten parte eta horixe izan zen Lakuntzako Planaren abiapuntua. Orrialde hauen bitartez jakinaraziko dizuegu zer den herritarren parte-hartzea eta Lakuntzan martxan jartzeak zer suposatuko duen.

Ikusmina, interesa eta jakin mina dagoela sumatu genuen batzarrean, eta hori oso interesgarria da. Izan ere, horrelako plan bat martxan jartzeko, hau da, udalaren ateak herritarren ahots eta parte-hartzeari zabaltzeko, ezinbestekoak dira ilusioa eta gogoa. Egitasmoan, beraz, bi aldeek partekatu behar dute, baina protagonismoa zuena da, herritarrena.

Ya está en marcha el Plan de Participación Ciudadana de Lakuntza. La reunión del jueves 23 de octubre en la que participaron 15 colectivos del pueblo sirvió como punto de arranque para hacer realidad la construcción paulatina de la participación ciudadana en nuestro municipio. En estas páginas trataremos de daros a conocer un poco lo que es la participación ciudadana y de lo que puede llegar a representar para Lakuntza su puesta en marcha.

Una reunión donde pudimos comprobar que existe expectación, interés y curiosidad por ver qué y cómo se va a poner todo esto en marcha, algo que consideramos muy interesante. Acometer una tarea como esta precisa de una alta dosis de ilusión y ganas por abrir las puertas del Ayuntamiento a la voz y la participación vecinal. Un proyecto necesariamente compartido, donde el protagonismo está en cada uno de vosotros y vosotras.


Lege gordailua: NA-1458/2003

Argitaratzailea: LAKUNTZAKO UDALA - Herriko plaza z/g - LAKUNTZA 31830 - tel. 948-576 015
fax 948 567260 - www.lakuntzakoudala.com - posta elektronikoa: info@lakuntzakoudala.com

bidean euskararen bidean

# Zer da herritarren parte-hartzea?

Herritarren parte-hartzea hiru zutabetan oinarritzen da.

- **Udal jarduerari buruzko informazio ona eta gardena ematea.** Informazioa izateak kalitatezko parte-hartzea ahalbideratzen du.
- **Udal jardueraren alor gehiagotan parte-hartzeko aukera ematea.** Ideiak kontrajarri, hitz egin eta proposamenak egin, horietan guztietan oinarritzen da herritarren parte-hartzea.
- **Udal jardueraren gainean erabakiak hartzeko aukera ahalbideratzea**, lau urtetik behineko hauteskundeak gaindituz. Herritarren parte-hartzea eskubide bat da.



Herritarren parte-hartzea ez da teknika bat, ez eta administrazio antolakuntza mota bat, are eta gutxiago erakunde bat. Talde konpromiso bat izan behar da: herritarren eguneroko parte-hartzea ahalbideratu eta udal gobernua ulertzeko modu berri bat sortzeko erronka hartzen duena.

La participación ciudadana se fundamenta en tres grandes pilares:

• Transparencia y buena información de la actividad municipal. El acceso a la información nos abre las puertas a una participación consciente y de calidad.

• Cauces y oportunidad de participar en cada vez más ámbitos de la actividad municipal. Participación ciudadana es contraste de ideas, diálogo, propuesta.

• Poder decidir sobre la actividad municipal más allá de las votaciones que se realizan cada cuatro años. La participación ciudadana es un derecho.

La participación ciudadana no debe reducirse ni a una técnica, ni a una forma de organización administrativa, ni mucho menos a una pose institucional. Debe ser un compromiso colectivo que asuma como reto crear una nueva forma de entender el gobierno municipal y el papel que la ciudadanía juega diariamente en el mismo.

Biderka-tik Lakuntzako Udalarekin, herriko talde eta bizilagunekin elkarlanean aritzeko ardura hartu dugu; metodologia diseinatu eta, Nafarroako Gobernuaren diru laguntza duen, Herritarren Partaidetzarako Plana abian jartzeko. Esperientzia hau Lakuntzarako emankorra eta onuragarria bilakatzeko ilusioa eta kezka dugu.

Biderka KONSULTING

Desde Biderka hemos asumido la responsabilidad de colaborar con el Ayuntamiento de Lakuntza y con todos los colectivos y vecinos y vecinas del pueblo para el diseño de la metodología y la puesta en marcha de un Plan de Participación Ciudadana que cuenta con la subvención del Gobierno de Navarra. Tenemos la misma ilusión y las mismas preocupaciones porque esta experiencia sea fructífera y positiva para Lakuntza.

# Zer egingo dugu Lakuntzan?

Esperientzia hau ahalik eta hobekien abiatzeko, bi gauzak dira ezinbestekoak: batetik, guztion artean ados jartzea herritarren parte-hartzearekin etorkizunean egin nahi dugunaz; eta, bestetik, hasierako lehen urratsetan, ahalik eta herritar gehienak inplikatzea

Hemendik eta abendura bitarte, ondoko egitasmoak jarri nahi ditugu martxan:

- Lakuntzako elkarteen izaera eta errealitate sozialari buruzko azterketa bat egiten ari gara, martxan jarriko ditugun **parte-hartze formula**k hobeki diseinatzeko. Izan ere, ez dago parte-hartzeko formula bakarra, herri bakoitzak berea aurkitu behar du.
- **Herritarren parte-hartzeari buruzko erregalamendu berri bat** idazten ari gara. Bertan zehaztuko dira parte-hartzeko eskubideak eta epaitegietan exijitu ahal izango dira. Eztabaida saioak edozeinek parte har dezakeen tailerretan buderatuko dira.
- Datozen hilabete eta urteetan garatzeko **Ekintza Plan** bat proposatzen ari gara, herriko hainbat arlotan: eskola, elkarte, aurrekontu… eta eskubide berri horien garapenean.
- Parte hartzeko orduan, garrantzia berezia izanen du udal aurrekontuen gaiak; izan ere, **2010ko udal aurrekontuak herritarren parte-hartzearekin onartu nahi ditugu**. Beraz, tailerretan eginen diren eztabaidetan adostutakoaren arabera, gure esku egonen da nola egin erabakitzea.





# Qué es lo que vamos a hacer en Lakuntza

La clave para que la experiencia siente las mejores bases posibles están en lograr un alto consenso en lo que queremos hacer en el futuro con la participación ciudadana, y en que la elaboración de estos primeros pasos lo hagamos el mayor número posible de vecinos y vecinas de Lakuntza.

En concreto de aquí a diciembre nos planteamos el siguiente plan de trabajo:

- Realizar un pequeño análisis de la realidad social y asociativa de Lakuntza que nos sirva para acertar en las fórmulas de participación que vayamos a poner en marcha. No existe una receta única para la participación ciudadana, sino que cada municipio debe buscar la suya propia.
- Estamos preparando un Reglamento de Participación Ciudadana como forma de concretar nuevos derechos a esta participación, de tal modo que sean exigibles incluso ante los tribunales. Los debates los desarrollamos en talleres abiertos a cualquier persona.
- Proponer un Plan de Acción donde programemos los pasos a dar en los próximos meses y años en ámbitos tales como la escuela, las asociaciones, los presupuestos, el desarrollo de esos nuevos derechos…
- Especial importancia tendrá la forma en que vayamos a abrir la participación y la decisión sobre los presupuestos del Ayuntamiento. La idea es que los presupuestos que se vayan a aprobar el próximo año 2010 lo sean de forma participativa y abierta. En nuestras manos está decidir la forma en que lo haremos mediante la discusión en estos talleres.

udal aldizkaria
LAKUNTZA
17. zenbakia 2008-11

# Tailerretan parte hartzeko gonbidapena

Azaldutako proiektua aurrera eramateko zenbait ekimen jarri ditugu martxan:

• Batetik, **Lakuntzako elkarte eta erakunde guztiekin hizketaldiak izaten ari gara** partehartzearen eta herriaren egoeraren inguruan euren iritzia ezagutu eta, biztanleriaren datuekin eta beste zenbait aurrekarirekin batera, herriaren errealitate soziala ezagutzeko.

• **Bestetik, zenbait eztabaida-tailer antolatuko ditugu**, Lakuntzan parte-hartzearen nondik norakoa ezagutu eta erabakiak hartzen joateko. Bilera hauen egutegia ondoren zehazten da eta **herritar guztiak gonbidatzen ditugu parte hartzera.**

## Invitación a los talleres

Para llevar adelante el proyecto explicado en estas páginas hemos puesto en marcha una doble dinámica:

• Por un lado, estamos realizando entrevistas con todas las asociaciones y entidades de Lakuntza para recabar su opinión sobre la participación ciudadana y la situación del municipio con el fin de que, junto con datos de población y algunos antecedentes, podamos conocer mejor la realidad social del pueblo con respecto a la participación.

• Por otro, vamos a organizar distintos talleres de debate y propuesta desde los que ir tomando decisiones acerca de cómo queremos que sea la participación ciudadana en Lakuntza. El calendario de reuniones es el que sigue y para el que, como todos y todas las vecinas de Lakuntza, tienes a través de este escrito tu correspondiente invitación.

Hurrengo eztabaida-tailerrak: **azaroaren 13** eta **27**an izango dira. **19:00-20:30.** Zatoz!

OHARRA: Parte-hartze planaren erreglamenduaren zirriborroa nahi duenak udal idazkaritzan eskatu dezake (tel. 948-576 015, info@lakuntzaudala.com). Eskuragai du ere: www.lakuntzakoudala.com helbidean.

Los próximos talleres de debate serán el **13** y el **27** de **noviembre**. De **19:00** a **20:30.** !Acude!

NOTA: aquellas personas que deseen tener el reglamento del plan de participación pueden solicitarlo en secretaría (tel. 948-576 015, info@lakuntzaudala.com). También lo encontrarán en: www.lakuntzakoudala.com

**Lakuntzako elkarte eta erakunde guztiekin hizketaldiak izaten ari gara. Argazkiotan abesbatza, ikastola eta eskolako kideak ageri dira.**



Parte-hartzea bideratzeak giro sozial egokia sortzea eta harreman sozialak hobetzea eskatzen du; horretarako, besteak beste, espazio publikoen, kultur arloaren eta bertako memoria historikoaren berreskuratzea eta mantentzea edo balore hauen guztien transmisioa landuz.



Crear el ambiente social más favorable para la participación ciudadana implica mejorar las relaciones sociales a través, entre otros, de actuaciones sobre los espacios públicos, en el campo cultural, en la recuperación y mantenimiento de la memoria histórica local, o de la transmisión educativa de todos estos valores.